



EBAZPENA, 2015ko abenduaren 10koa, Euskadik Estatu Batuetan daukan ordezkariarena, Euskadik Estatu Batuetan daukan Ordezkaritzaren zerbitzuan jarduteko Institutional Relations Officer/goi-mailako teknikari/arduradun instituzional baten postua betetzeko hautaketa-prozesurako deialdia egiteko dena.

Lehendakaritzako egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa den apirilaren 9ko 187/2013 Dekretuak Euskadik atzerrian dituen ordezkariak arautzen ditu, eta ordezkariak horien artean dago Euskadik Estatu Batuetan daukan ordezkariak.

Geroago, martxoaren 12ko 181/2013 Dekretuaren bidez, Estatu Batuetarako Euskadiko ordezkaria izendatu zen.

Euskadik Estatu Batuetarako daukan ordezkariak langile-azpiegitura egokiaz hornitzeko, pertsona bat kontratatzekeo prozesua hasi nahi da ebazpen honen bidez, Estatu Batuetako lan-araudian xedatutakoaren arabera, betiere helburua izanik hutsik geratu den goi-mailako teknikari-postu bat betetzea.

Apirilaren 9ko 187/2013 Dekretuaren 18.3 a) artikulua xedatu bezala,

EBAZTEN DUT

Artikulu bakarra. Hautaketa-prozesura deitzea, lan-kontratu finkoko langile-postu bat betetzeko Institutional Relations Officer/goi-mailako langileen/arduradun instituzionalen kategorian, Euskadik Estatu Batuetarako daukan Ordezkaritzaren zerbitzuan jarduteko, ebazpen honen eranskinean adierazten diren deialdiko oinarrien arabera.

Azken xedapen bakarra. Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian, hilabeteko epean egun honetatik aurrera: 2015ko abenduaren 14a; hau da, hemen argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera:

<http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/kanpo-harremanak-lan-eskaintza>

ANDER CABALLERO

Euskadiren Estatu Batuetako ordezkaria

ERANSKINA
DEIALDIAREN OINARRIAK

1.- DEIALDIAREN XEDEA

1.1.- Deialdi honen xedea da lan-kontratu finkoko langile-postu bat betetzea Euskadiko Estatu Batuetako Ordezkaritzan, honako kategoria eta kokapena honetan:

- Goi-mailako teknikari/arduradun instituzional plaza bat
- Lanpostuaren kokapena: Euskadiko Estatu Batuetarako Ordezkaritza

1.2.- Lanpostuari lotutako eginkizunak, ordainsaria eta gainerakoak oinarri hauetako I. eranskinean daude zehaztuta.

2.- KONTRATAZIO-BALDINTZA OROKORRAK

2.1.- Aukeratutako langilea Euskadik Estatu Batuetarako daukan ordezkariak kontratatuko du, hark baliatuko baititu enpresari-ahalmenak, eta lan-kontratu finkoa izenpetuko baitu Estatu Batuetan indarrean dagoen lan-araudian xedatutako eskubide eta betebeharrak guztiekin. Langilea Estatu Batuetan lan egiteko kontratatuko da; beraz, zerbitzuak herrialde horretan emateko beharra desagertzen bada, kontratu-harremana iraungi egingo da.

2.2.- Epaimahaiak hautagaitza bakarra aukeratuko du.

3.- IZANGAIEN BETEBEHARRAK

3.1.- Izangaiek hurrengo puntuan adierazitako baldintzak bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik, eta haiek betetzen jarraitu beharko dute beren lan-kontratua amaitu arte.

3.2.- Honako hauek deialdi honetako probetan onartua izateko nahitaezko baldintzak dira:

- a) Estatu Batuetako lan araudiak finkatutako betebeharrak betetzea urtebeteko baino gehiagoko lan kontratua egiteko.
- b) Honako hau izatea, edo eman dezaten eskubideak ordainduta edukitzea: goi-mailako unibertsitate-lizentzia edo gradu titulu bat.

Espanian edo Estatu Batuetan onartzen ez diren titulazioen kasuan, haien homologazioa egiaztatzen duen kredentziala izan beharko da.

- c) Gutxienez 2 urteko esperientzia izan beharko da erakunde publikoetan edo publiko-pribatuetan, lanpostuari lotutako eginkizunekin zerikusia duten zereginetan.
- d) Ingelesa eta gaztelania menderatzea (ahoz zein idatziz)

Ingeles eta gaztelania ezagueraren egiaztapena hiru modutan egin ahalko da: dagokion titulua aurkeztuz, berariaz deitutako ezaguera-probak gaindituz edo elkarrizketan; izan ere, Epaimahaia izango da eskumeneko agintea erabakitzeke hautagaiak duela deialdi honetan eskatzen den ingeles eta gaztelania maila.

4.- PROZESUARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA ESKABIDEEN AURKEZPENA.

4.1.- Prozesuari buruzko informazioa helbide honetan lortu ahal izango da:

-Web-orria:

<http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/kanpo-harremanak-lan-eskaintza>

-Posta-helbidea:

Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritza
820 2nd Avenue, Suite 13B | New York, NY 10017
Tel. +1.646.368.6040

4.2.- Deialdi hau New Yorken gehien zabaltzen diren egunkarietako batean argitaratuko da, bai eta aurrez aipatutako web guneeetan ere.

4.3.- Eskabideak aurkezteko tokia, epea eta modua:

Eskabideak oinarri hauetako II. eranskineko eredu normalizatuan aurkeztuko dira, atal guztiak beteta; eredu hori behera kargatu ahal izango da aurreko puntuan adierazitako web-orrietan (4.1. puntua).

Eskabideak hiru modu hauetako batean aurkeztuko dira:

- zuzenean Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzara
820 2nd Avenue, Suite 13B | New York, NY 10017
Ordutegia: 9:00etatik 17:00ak arte
- postaz bidalita helbide berera
- posta elektronikoz bidalita helbide honetara: hrr.usa@euskadi.eus

Eskabideak aurkezteko epea hau izango da: 2015ko abenduaren 14tik 28ra, biak barne.

4.4. – Datu pertsonalen fitxategia

Izangaiek eskabideetan emandako informazio guztia hautaketa-prozesurako baino izango ez den fitxategi batean jasoko da. Fitxategi horren erabilera eta funtzionamendua bat etorriko da datu pertsonalen babes-arloan Estatu Batuetan indarrean dagoen araudiko aurreikuspenekin.

5.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA.

5.1.- Izangaien baldintzak, merituak eta probak ebaluatzeke epaimahaiko kideak hauek izango dira:

- Estatu Batuetarako ordezkaria, Ander Caballero Barturen; lehendakaria izango da.
- Kanpo Harremanetarako zuzendaria Leyre Madariaga Gangoiti; kidea izango da.
- Kanpo Harremanetarako teknikaria Estibaliz Urcelay Erguido; kidea izango da

- Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzako idazkaria Caitlin Dolan; epaimahaiaren idazkaria izango da.

5.2.- Epaimahaiko kideek eragina izateko aukerari uko egin beharko diote, eta agintari deitzaileari jakinarazi beharko diote izangaiekin familia-lotura, adiskidetasuna edo ageriko etsaitasuna badute, edo hautaketa-probetara aurkezten diren izangaiaiek prestatzeko lanak egin badituzte deialdia argitaratu aurreko azken bost urteetan.

Era berean, aurreko kausetako bat tartean izanez gero, interesdunek epaimahaikideak edozein unetan ezetsi ahal izango dituzte.

5.3.- Epaimahaiak guztizko autonomia funtzionalarekin jokatu du, prozeduraren legezkotasuna zainduko du, eta haren objektibotasuna bermatzeko ardura izango du.

Era berean, deialdia ondo garatzeko behar diren erabakiak hartuko ditu, eta aurreikusi gabeko kasuetan erabili beharreko irizpideak zehaztuko ditu.

6.- HAUTAKETA-PROZEDURA.

6.1.- Izangaiaiek deialdian parte hartzeko aipatutako nahitaezko baldintzak betetzen dituztela baloratuko du epaimahai kalifikatzaileak, eta onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda egingo du.

Izangai bakoitzari zenbaki bat eman eta jakinaraziko zaio bere pribatutasuna bermatzeko.

Epaimahaiak 4.1. puntuan aipatutako helbideetan hautaketa-prozesuan behin behineko onartuen eta baztertuen zerrenda argitaratuko du, izangaiaiek aurrez emandako zenbakiaren bitartez identifikatuz. Zerrenda horretan agerian jarriko da baztertutako izateko izan diren arrazoiak eta 10 egun naturaleko epea emango zaie erreklamazioak egin ahal izateko. Halaber, lehenengo ariketaren data, ordua eta tokia jakinaraziko da.

Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta, hala egokituz gero, aurkeztutako erreklamazioez ebatzi ondoren, publiko egingo da, hautaketa-prozesuan onartuen behin betiko zerrenda, izangaiaiek aurrez emandako zenbakien bitartez identifikatuta.

6.2.- Hautatzeko prozedurak bi fase izango ditu: lehiaketa-fasea eta meritu-fasea.

Lehiaketa-fasean hiru ariketa egingo dira: ezagutza-proba bat edo batzuk; proba psikotekniko bat; eta elkarrizketa bat epaimahaiarekin.

Meritu-fasean honako hauek neurtuko dira: lanpostuari lotutako zereginekin zerikusia duten titulu ofizialak; lanbide-esperientzia; eta kreditatu nahi diren hizkuntzak jakitea.

6.2.1.- Lehiaketa-fasean hiru ariketa egingo dira:

6.2.1.1.- Lehen ariketa: Lanpostuari lotutako eginkizunekin zerikusi zuzena duten ezagutza eta/edo trebetasunei buruzko proba bat edo batzuk. Nahitaezkoa eta baztertzailea izango da.

Gehienez ere 30 puntuko kalifikazioa lortu ahal izango da, eta **20 puntu** lortzen ez dituztenak kanporatuta geratuko dira. Gainera, hautaketa-prozesuan soilik jarraituko dute eta ezagutza-probetan puntuaziorik onena lortu duten 15 lehen izangaiak soilik onartuko dira proba psikoteknikoa egiteko. Gainerako izangaiak, nahiz eta **20 puntu** lortu, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira.

6.2.1.2. Bigarren ariketa: proba psikotekniko bat egingo da izangaia lanposturako eskatutako profilerak egokitzen den neurtzeko. Nahitaezkoa eta baztertzalea izango da, eta honela kalifikatuko da: GAI edo EZ GAI.

Ezagutza-probak eta proba psikoteknikoa gainditu dituzten izangaiak baino ez dira onartutako elkarrikketarako.

6.2.1.3.- Hirugarren ariketa: Elkarrikketa bat egingo da izangaiek lanpostua betetzeko dituzten gaitasunak eta trebetasunak ebaluatzeko; elkarrikketaren barruan, kasu praktikoa bat izango da, izangaiek ahoz erantzun dezaten. Nahitaezkoak eta baztertzaleak izango dira.

Gehienez ere 30 puntuko kalifikazioa lortu ahal izango da, eta **20 puntu** lortzen ez dituztenak kanporatuta geratuko dira.

6.2.2.- Meritu-fasean honako hauek aztertuko dira:

- Lanpostuari lotutako zereginekin zerikusia duten gainerako titulazioak (lizentziaturak, graduak, diplomaturak, masterrak), irakaskuntza edo ikerketa-jarduna: **gehienez ere 10 puntu**.
- Lanpostuari lotutako zereginekin zerikusia duten eginkizunetan izandako gainerako esperientzia, gutxienez eskatutako 2 urteez gain: **gehienez ere 15 puntu**.
- Euskara jakitea: **gehienez ere 10 puntu**.
- Frantsesaren ezaguera: **gehienez ere 5 puntu**

Frantsesa jakiteari dagokionez, erakunde ofizial batek emandako titulazioa aurkeztuta soilik egiaztatuta ahal izango da.

6.3.- Hautaprobak hastea eta garatzea.

Hautaketa probetan identifikazio-ondorioetarako, hautaketa-prozesuan parte hartzen dutenek Social Security Number-a edo pasaportearen eraman beharko dute probetara.

Epaimahai kalifikatzaileak egokitzea behar duten eta eskabidearekin bat hala galdetu duten izangai desgaituentzat moldatuko ditu ariketak egiteko denbora eta bitartekoak, gainerako parte-hartzaileen aukera bera izan dezaten.

Lehen ariketa egin ondoren, behar bezala jakinaraziko zaie izangaiei ariketa gainditu duten ala ez, eta 10 egun naturaleko epea izango dute erreklamazioak egiteko.

Erreklamazioez ebatzi ondoren, lehen proba horretan lortutako behin betiko emaitza jakinaraziko zaio erreklamatzailerako bakoitzari.

Lehen ariketa gainditu duten pertsonen hurrenkera-zerrenda egin ondoren, bigarren ariketarako deia egingo zaie lehen ariketan puntuaziorik onena lortu duten 15 izangaiei baino ez, eta bigarren proba non, noiz eta zer ordutan egingo den esango zaie.

Bigarren ariketa egin ondoren (proba psikoteknikoa), proba gainditu duten ala ez esango zaie aurkeztutakoei. Guztira 10 egun naturaleko epea izango dute behin-behineko erabaki horren aurka egin eta berrikuspena eskatzeko.

Epea igaro ondoren, eta erreklamazioei buruzkoak ebatzita, proba psikoteknikoa behin betiko gainditu duten ala ez esango zaie erreklamazio horien egileei, eta hirugarren ariketa edo elkarrizketa non, noiz eta zer ordutan egingo den jakinaraziko zaie bigarren ariketa gainditu duten pertsoneri.

6.4.- Izangaien azken kalifikazioa lehiaketa-fasean eta meritufasean lortutako puntuazioak batuta kalkulatu da.

7. - ONARTUAK ETA HAUTATUAK. AUKERATZEA ETA LANPOSTUA ESLEITZEA.

7.1.- Epaimahaiak hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioaren arabera egingo du onartutako izangaien hurrenkera.

7.2.- Aipatutako behin-behineko zerrenda egin ondoren, epaimahaiak jendaurrean zabalduko du, Estatu Batuetarako ordezkariaren ebazpen bidez, eta 10 egun naturaleko epea emango da erreklamazioak aurkezteko. Ebazpenean izangaiek hautaketa-prozesuko fase bakoitzean lortutako puntuazioa agertuko da, eta izangai bakoitza aurrez emandako zenbakiaren bitartez identifikatuta agertuko da.

7.3.- Epe hori igaro eta, hala egokituz gero, aurkeztutako erreklamazioei buruzkoak ebatzi ondoren, Euskadiko Estatu Batuetarako ordezkariak ebazpen bidez argitara emango du onartutako pertsonen behin betiko hurrenkera-zerrenda aurrez emandako zenbakien bitartez identifikatuta, bai eta azkenean behin betiko hautatutako pertsonaren izena ere, eta hari hamabost (15) egun naturaleko epea emango zaio, eskatutako eta adierazitako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko eskatzen zaizkion jatorrizko agiriak edo konpultsatutako fotokopiak aurkez ditzan. Postu hau esleitu zaion pertsonak berariaz emango du baimena bere izena prozesuaren azken ebazpenean argitaratzeko.

Halaber, Ebazpen horretan lan kontratua sinatzeko gehieneko epea finkatu da.

7.4.- Konpultsatutako fotokopiek, baliozkoak izateko, informazio hau jaso beharko dute: data, izen-abizenak, Social Security Number-a eta konpultsaren arduradunaren sinadura irakurgarria.

7.5.- Adierazitako dokumentuak aurkeztea ezinezkoa bada (behar bezala justifikatuta), izangaiek zuzenbidean onargarria den edozein frogabide baliatuta egiaztatu ahal izango du deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituela.

7.6.- Adierazitako epearen barruan, eta ezinbestean izan ezean, dokumentazioa aurkezten ez duena, edo dokumentazioaren azterketatik ondorioztatzen denaren arabera hirugarren oinarriak aipatutako baldintzaren bat betetzen ez duena, edo lanpostuari lotutako eginkizunak betetzeko eska daitekeen gaitasun fisikoa edo psikikoa ez duena,

ezin izango da kontratatatu, eta egindako jarduketa guztiak deuseztatu egingo dira, eskabidea faltsutzeagatik legokiokkeen erantzukizuna baztertu gabe.

7.7.- Kasu horretan, Euskadiko Estatu Batuetarako ordezkariak kontratazio-proposamena egingo du hautaketa-prozesuan onartutako behin betiko zerrendako puntuazio-ordenaren arabera hurrengoa den izangaiaren alde.

8. KONTRATAZIOA.

8.1.- Dokumentuak aurkezteko epea amaituta, hautatutako pertsonari jakinaraziko zaio zer egun eta ordutan formalizatuko den Euskadiko Estatu Batuetarako Ordezkaritzaren zerbitzuko lan-kontratua.

8.2.- Hautatutako izangaiak izenpetu beharko du lan-kontratua lanpostua esleitzen duen Ebazpenak adierazitako epean. Epe hori, izangaiak eskatzen badu, eta arrazoiak badaude, luzatu ahal izango da.

9. PROBALDIA.

9.1.- Kontratuan Estatu Batuetan indarrean dagoen lan-araudiko denborarako xedatuko da "probaldia".

Probaldi horretan, gaitasun edo alderdi hauek ebaluatuko dira kontratatutako pertsonari dagokionez: arazoak konpontzeko gaitasuna, erabakiak hartzekoa, lanpostua ezagutzea, pertsonen arteko harremanetarako gaitasuna, ekimena, antolatze gaitasuna eta produktibitatea.

9.2.- Hautatutako pertsonak ez badu gainditzen probaldia, epaimahaiak hurrengo hautagaiaren aldeko kontratazio-proposamen osagarria egingo du, betiere hautaketa-prozedura gainditu dutenen behin betiko zerrendako puntuazio-hurrenkeraren arabera. Horretarako, zerrendako hurrengo pertsona joko du hautatutzat.

OINARRIEN I. ERANSKINA

INSTITUTIONAL RELATIONS OFFICER/ GOI-MAILAKO TEKNIKARI / ARDURADUN INSTITUZIONAL POSTUAREN EZAUGARRIAK

1.- Misioa eta eginkizunak

1.1. Lanpostuaren misioa:

Estatu Batuetako errealitatea oinarri hartuta, bai herri-administrazioa haren maila guztietan, bai kultura-esparrua, bai hezkuntza-esparrua, bai eta ekonomia- eta enpresa-esparrua ere gogoan hartuta, azterketak eta txostenak egitea, eta aholkuak ematea, hala nola Estatu Batuetako erakundeekin lankidetzan aritzeko proposamenak egitea. Era berean, aholkularitza-lana egin beharko du herrialdeko euskal kolektibitatearentzat, bai harentzako programetan, bai sor daitezken beste kontu batzuetan.

1.2. Eginkizun nagusiak:

- a) Estatu Batuetako eta Euskadiko errealitate politikoa eta administratiboa ezagutzea eta etengabe izatea hari buruzko informazioa.
- b) Zuzeneko eta alderantzizko misioak antolatzea eta kudeatzea.
- c) Harreman-bide zuzenak sortzea eragile ekonomiko instituzionalekin, unibertsitateekin, fundazioekin eta Euskadiko eragileekiko truke-proiektuak garatzeko informazio garrantzitsua eta espezializatua eman dezaketen Estatu Batuetako erakunde publiko edo pribatuekin.
- d) Behar den harremana izatea Estatu Batuetako erakunde publiko eta pribatuetako maila teknikoekin, Ordezkaritzak sustatzen dituen eta Euskadiko eragileek garatu asmo dituzten proiektuak gauzatzeko.
- e) Informazioa lortzea Euskadiko eragileentzat interesgarria izan daitekeen Estatu Batuetako herri-administrazioen jardunari buruz.
- f) Euskadiko eragileek Estatu Batuetan proiektuak kudeatu eta izapidetzeari buruz eska dezaketen informazioa lortzea eta Euskadiko erakunde publiko eta pribatuen esku jartzea.
- g) Estatu Batuetako pertsona eta erakundeek Euskadirekin batera proiektuak martxan jartzeko eska dezaketen informazioa lortzea eta haien eskura jartzea.
- h) Organismo aldeaniztunak ezagutu, informatuta egon eta kontaktuak egin, eskatzen duten euskal eragileei beharreko laguntza eman ahal izateko.
- i) Litezkeen jarduera-esparru egokiak hautematea, Euskadiko eragile publiko edo pribatuekiko lankidetzak-jardunak garatzeko, eta behar den informazioa helaraztea eragile horiei, azter dezaten eta, hala egokituz gero, proiektuak martxan jar ditzaten.
- j) Behar den laguntza ematea izenpetzen diren lankidetzak-hitzarmenek emaitza ona izan dezaten.
- k) Ordezkaritzak, euskal interesak Estatu Batuetan babesteko eginkizun orokorraren barruan, martxan jartzen dituen jardueretan laguntzea.
- l) Zeharka bermatzea neurriak hartuko direla jarduera guztietan genero-ikuspegia jasotzeko, eta hizkuntzaren erabilera ez-sexista egitea sortzen den dokumentazio guztian.
- m) Euskadiren Estatu Batuetako ordezkariak erabaki ditzakeen bestelako ekintzak

2.- Ordainsaria: 60.000 dolar gordin urtean kontzeptu guztiengatik.

3.- Kontratuaren iraupena: Mugagabea (betiere probaldia gainditu bada)

II. ERANSKINA

DEIALDIAN PARTE HARTZEKO ESKABIDE-ORRIAREN EREDUA

Deitutako lanpostuaren izena
INSTITUTIONAL RELATIONS OFFICER/ GOI MAILAKO TEKNIKARI/ ARDURADUN INSTITUZIONALA

Eskatzailearen datuak	
Abizenak	
Izena	Social Security Number edo pasaporte a
Helbidea	
Posta elektronikoa	Harremanetarako telefonoa

ADIERAZITAKO NAHITAEZKO BALDINTZAK:

1.- Estatu Batuetan lan-kontratua izenpetzeko behar den egiaztatze-titulua		
Egiaztatze-tituluaren izena	Emankizun-data	Balio-epea

2.- Unibertsitate-titulu ofiziala	
Lizentziatura edo graduarenen izena	Urte-kopurua

3.- Erakunde publikoetan edo publiko-pribatuetan izandako 2 urteko lanbide-esperientziaren egiaztagiria		
Lanpostuaren izena	Hasiera-data	Amaiera-data

**4.- Hizkuntzak: Ingelesa eta gaztelania**

Hizkuntza	Ziurtagiria edo maila

5.- Curriculum vitae-a (erantsi)**ADIERAZITAKO MERITUAK:****a.- Prestakuntza: Titulazio ofizialak (lizentziaturak, graduak, diplomaturak, masterra, irakaskuntza edo ikerketa-jarduna)**

Izena	Urte-kopurua

b.- Gainerako lanbide-esperientziaren egiaztatzea

Lanpostuaren izena	Hasiera-data	Amaiera-data

c.- Hizkuntzak : Euskara eta frantsesa	
Hizkuntza	Ziurtagiri ofizialeko titulua

Beherago sinatzen duen pertsonak deialdian onartua izatea eskatzen du, eta eskabide honetan aipatutako datuak egiazkoak direla adierazten du; eskabide honetan adierazitako datu guztiak agiriz frogatzeko konpromisoa ere azaltzen du.

.....-n, 2015ekoren-(e)an

Sinadura